

2013KO UZTAILAREN 15EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabosta.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko ekainaren 24ko aktaren berri eman ondoren, ondorengo iritziak azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du aktan ez dela jasotzen berak lizitazio prezioari esandako guztia, hau da, “...*Hain zuzen ere jakin nahi duguna da lizitazio prezio horretan, langile baten kalte-ordaina aurreikusten den ala ez...*”, esaten duen tokian, ondorengo jaso behar du: “...*Hain zuzen ere jakin nahi duguna da lizitazio prezio horretan, langile baten kalte-ordaina aurreikusten den ala ez, zeren eta guri gobernu taldeak hori proposatu zigun...*”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Nik egindako beste adierazpen batzuk ere ez dira jasotzen. Beraz, “*Zer egin honen aurrean?. Aurreko legealdiko gobernuan egon den jendearekin egoten saiatzen naiz. Aitor Aldasorori mezua bidaltzen diot eta arratsaldeko seietan biltzea adosten dugu. Ordu horretan, Aitor Aldasororen partetik mezua jasotzen dut esanez Eva Diezen zain zegoela eta iristerakoan biak bilerara azalduko zirela. Antolakuntza-gelan biltzen gara, baina zer bilera mota zen hura?. Gaia azaldu nien, baina gauza gehiagoetaz hitz egin genuen. Nire asmoa ez zen BILDU-EAJren arteko bilera izatea. Aitor Aldasorok eskatu zidan idatziz bidaltzeko proposamena. Ezinezkoa izan zen zerbait adostea. Guk zenbakiak atera ditugu eta abokatuekin ere bildu gara. Alfonsori ere, Aitor Larburuk uste dut zerbait komentatu ziola.*”, esaten duen tokian ondorengo esan behar du: “*Zer egin honen aurrean?. Aurreko legealdiko gobernuan egon den jendearekin egoten saiatu nintzen. Kulturako Lehendakari gisa, Aitor Aldasorori mezua bidaltzen diot esanez berarekin bildu nahi dudala eta arratsaldeko seietan biltzea adosten dugu. Ordu horretan, Aitor Aldasororen partetik mezua jasotzen dut esanez Eva Diezen zain zegoela eta iristerakoan biak bilerara azalduko zirela.*”

Antolakuntza-gelan biltzen gara, baina zer bilera mota zen hura?. Gaia azaldu nien, historia eginez eta adieraziz urteetan emandako kudeaketaren ondorioa dela orain dagoen arazoa, baina gauza gehiagoetaz ere hitz egin genuen. Nire asmoa ez zen BILDU eta EAJren arteko bilera izatea, baizik eta lehen esan dudan bezala, pertsonalki eta Kulturako Lehendakaria naizenez, elkarrizketa bat izan nahi nuen Aitor Aldasororekin, dagoen arazoari irtenbide bat bilatzek, baina ez zen posible izan. Ezinezkoa izan zen zerbait adostea. Aitor Aldasorok eskatu zidan idatziz bidaltzeko proposamena. Guk lizitazio prezioa ezarri aurretik zenbakiak atera ditugu eta abokatuekin ere bildu gara. Alfonsori ere, Aitor Larburuk uste dut zerbait komentatu ziola.”

Dena dela erabaki da, 2013ko ekainaren 24ko akta ez onartzea eta hurrengo bilerara berriro eramatea onartzeko proposatuz, aldaketak egin ondoren.

2.- HORNIDURARI BURUZKO KONTRATAZIOA. Beasaingo argiteria publikorako udal energia plana exekutatzeko barneratutako ekipamendu elektriko hornidura eta instalaziorako (fluxu-erreguladoreak, arku zeramikoko lanpara halogenuro metalikoak eta ekipamendua, led moduluak eta led luminariak).

Zerbitzu batzordeak emandako txostenaren arabera, aipatutakoa kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea proposatu da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gu abstenitu egingo gara. Energia aurreztearekin ados bagaude ere, gertatu daiteke lortu ditzakegun dirulaguntzak eskasak izatea edota dirulaguntzarik ez jasotzea. Hori hórrela izanik %100 gastatzea behartuta egongo ginateke.

Bestalde esan, lehenengo bi jarduerekin ados egonda ere, ez gaudela hirugarren jarduerarekin alde ez duelako aurrezketarik suposatzen.”

Josi Insausti jaunak adierazi du bere jarrera ere abstentzioa izango dela arrazoi berdinegatik.

Beste guztiek proposamenaren alde azaldu dira.

Horren ondorioz, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Beasaingo argiteria publikorako udal energia plana exekutatzeko barneratutako ekipamendu elektrikoen hornidura eta instalaziorako (fluxu-erreguladoreak, arku zeramikoko lanpara halogenuro metalikoak eta ekipamendua, led moduluak eta led luminariak) kontratatzeke baldintza plegu administratibo eta teknikoak onartzea eta deialdi publikoa egitea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz. Iragarki horretan xehetasun hauek aipatuko dira:

1.- Entitate esleitzaila.

- a) Organismoa: Beasaingo Udala.
- b) Espedientea izapidatzen duen dependentzia: Zerbitzu Departamentua.
- c) Espedientearen Kodea: 2013ZEBO0073.

2.- Kontratuaren helburua.

- a) Helburuaren deskribapena: Beasaingo argiteria publikorako udal energia plana exekutatzeko barneratutako ekipamendu elektrikoen hornidura eta instalaziorako (fluxu-erreguladoreak, arku zeramikoko lanpara halogenuro metalikoak eta ekipamendua, led moduluak eta led luminariak).
- b) Entregatu beharrezko unitate zenbakia: baldintza teknikoan ezarritakoak.
- c) Entregatzeko epea: Hiru urte (2013, 2014, 2015).
- d) Entregatzeko tokia: Etxezarretako biltegia, Erauskin auzoa, 21 Beasain.

3.- Prozedura eta izapidea.

- a) Izapidea: Arrunta.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Esleipen irizpideak:

Automatikoki puntuatzen direnak:

- Eskaintza ekonomikoa: 41 puntu.
- Epearen hobekuntza: 9 puntu.

Automatikoki puntuatzen ez direnak:

- Hornitu beharreko ekipoak: 22 puntu.
- Instalakuntza exekutatzeko memoria teknikoa: 14 puntu.
- Azterketa luminoteknikoak: 10 puntu.
- Hobekuntzak: 4 puntu.

4.-Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

339.674,32 € gehi 71.331,6 (%21 BEZ), urte hauetan banatuta:

- 2013 urtea: 120.529,88 € gehi 25.311,27 (%21 BEZ)
- 2014 urtea: 125.465,44 € gehi 26.347,74 (%21 BEZ)
- 2015 urtea: 93.679 € gehi 19.672,59 (%21 BEZ)

5.- Eskatutako bermeak:

- a) Behin-behinekoak: Ez da eskatzen.
- b) Behin betikoa: esleipen kopuruaren %5a BEZrik gabe.

6.- *Kontratastaren betebeharrak bereziak:*

- e) Kaudimen ekonomikoa eta finantzieroa.

- Banketxeko dagozkien aitortpenak.
- 601.012 €ko erantzukizun zibilaren aseguruua.

- f) Kaudimen teknikoa eta profesionala:

- Azken hiru urteetan eginiko hornikuntza garrantzitsuenak, zenbatekoa, datak eta norentzat egin diren (publikoa edo pribatua) adierazita. Egindako hornidurak organo eskudunak eginiko ziurtagirien bidez edo organo horrek eginiko ikus-onespenaren bidez egiaztatuko dira, hartzailea alor publikoko erakundea denean, eta hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek eginiko ziurtagiriaren bidez, eta ziurtagirik ez dagoenean, enpresariaren adierazpen baten bidez.

- Zeintzuk diren kontratuan parte hartuko duten teknikariak edo unitate teknikoak eta, bereziki, kalitate kontrolaren arduraduna, enpresa barrukoak izan nahiz ez izan.

- ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 18001 ziurtagirien egiaztapena enpresa lizitatzaileraren aldetik.

- Erakusgarriak, deskribapenak eta hornitzeko produktu etako argazkiak (katakogoak), zeinen benetakotasuna ziurtatu ahal dadin sektore publiko kontratatzaileak eskatuz gero.

- CE markaren adostasun-adierazpena eta harekin lotutako dokumentazio teknikoa (zehaztapen teknikoen pleguko 6.3.4. atalean ematen den ziurtagirien zerrenda) lehiaketan hornitzeko led modulu etarako eta led luminari etarako.

7.- *Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea.*

- a) Entitatea: Beasaingo Udalaren zerbitzu departamentua.
- b) Helbidea, Herria eta Kode postala: San Martin plaza z/g, Beasain (Gipuzkoa) 20200.
- c) Telefonoa: 943.028.050. Faxe: 943.028.051. E-mail: zerbitzu@beasain.net
- d) Web Orria: www.beasain.org ("Udala " eta "Kontratatzaileraren profila") lotuneak
- e) Dokumentuak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna arte.

8.- *Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea..*

- a) Aurkezteko azken eguna: 2013-09-05.

- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Deialdiko baldintza administrativo berezien orrian zehazten dira.
- c) Aurkezteko tokia: Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoa (Plaza San Martin z/g, 20200 Beasain (Gipuzkoa)).
- d) Lizitatzailleak bere eskaintzari eutsi beharra duen epea: 2 hilabete.

Proposamenak aipatutako lekuan aurkeztuko dira, ordutegi honetan: goizeko 8,00etatik 13,00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.

Proposamenak posta bidez ere bidal daitezke. Kasu horretan, bidalketak Postetxeko bulegoan duen data egiaztatu beharko du enpresariak eta egun berean eskaintzaren bidalketa kontratazio organoari jakinarazi, telegrama edo telecopiaren bidez. Bi baldintza horiek betetzen ez baditu, proposamena ez da onartuko, baldin eta kontratazio organoak, aipatutako epea emaitzen den eguna baino beranduago jasotzen badu hura. Dena den, esandako egunaren biharamunetik hamar egunen buruan proposamena jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko..

9.- Eskaintzak irekitzea.

- a) Helbidea eta Herria: Beasaingo Udala (Salón de Plenos). Plaza San Martin z/g, 20200 Beasain (Gipuzkoa).
- b) Data eta ordua: Dagozkion izapideak egin ondoren onartutako lizitatzaillei bidalitako jakinarazpenean adierazitako toki, data eta orduan egingo da.

10. Iragarkien gastuak.

Esleipendunaren kontura. Gehienera 1.200 €.

11.- Iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den data adieraztea.

3.- OBRAK ESLEITZEA:

ESTEBAN LASA ETA MARIARATS KALEETAKO HEGIA EGONKORTZEKO PROIEKTUAREN OBRAK.

Ezagutzera eman da, 2013ko uztailaren 9ko Kontratazio-Mahaiaren proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 23an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Esteban Lasa eta Mariarats kaleetako hegialak egonkortzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 100.196,73 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 8 aste.

2.- Deialdia, 2013ko maiatzaren 29an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora bederatzi enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, lau enpresei dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaien. Errekeritutako dokumentazioa denek aurkeztu zuten eta horren ondorioz denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Uztailaren 9an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

Lizitazio prezioa BEZ gabe: **100.196,73 €.**

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA / PRECIO
1	CNES CAMPEZO	97.106,50 €
2	SOLUTIOMA, S.L. Erregistro sarrera zkia: 1956	91.530,79 €
3	MIRAMAR GUNITADOS, S.A. Erregistro sarrera zkia: 1977	82.228,81 €
4	CNES MARIEZCURRENA Erregistro sarrera zkia: 1985	92.690,32 €
5	IPARRAGUIRRE- ITURRIOZ (UTE) Erregistro sarrera zkia: 1991	87.006,62 €
6	URBYCOLAN-GRAMA (UTE) Erregistro sarrera zkia: 1994	93.694,70 €
7	TESINSA Erregistro sarrera zkia: 1997	86.616,18 €
8	ZUT, S.A.	96.517,42 €
9	VICONSA	93.182,97 €

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

a) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, alde zuzenetik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. *BALIOZKOTZAT* jotako eskaintza *GUZTIAK* zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. *Ekonomikoena* suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta *A ESKAINTZA* izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, *B* izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 + 1,25 \times ((A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} - B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) / 1000$

b) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- *EUSKERA* sustatzeko ziurtagiria, hala nola “*BAI EUSKARARI*”, “*BIKAIN*” edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.
-
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

c) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- *Gobenu Estatalak* edo *EMAKUNDE* emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi da *UTE*, *ITURRIOZ-IPARRAGIRRE* eta *CNES MARIEZCURRENA*, euskera sustatzeko ziurtagiria aurkeztu dutela eta bakarrik *CNES MARIEZCURRENA* eta *CNES CAMPEZO* enpresek aurkeztu dute, emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiria.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaia erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea-

Beraz, lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengo da:

PLEGUEN IREKIERA: ESTEBAN LASA ETA MARIARATS KALEETAKO HEGALAK EGONKORTZEKO OBRA-LANAK APERTURA DE PLICAS: ESTABILIZACION DE LADERAS ENTRE LAS CALLES ESTEBAN LASA – BISTA ALAI Y CALLE MARIARATS																
Espe Kodea Nº Expte) 2013PROB0002																
Epea - Plazo (este - semestres) 3																
OINARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE 100.196,73																
BEZ - IVA 21%																
BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA 21.041,31																
OROTORA - TOTAL 121.238,04																
BATEZ BESTEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA -9,00%																
KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS	KONTABILIZAZIOA - PLAN DE CUENTAS		
															ESKAINZA	ESKAINZA
ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS	ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS		
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14			
1	1977	MIRAMAR GUNITADOS, S.A.	82.228,81	21%	17.268,05	99.496,86	-17,93%	-8,93%	-9,81%				90,00	0,00	0,00	90,00
2	1997	TESINGA	86.616,18	21%	18.189,40	104.805,58	-13,55%	-4,55%	-5,00%				83,36	0,00	0,00	83,36
3	1993	PARRAGARRRE-ITURRIOZ (UTE)	87.006,62	21%	18.271,39	105.278,01	-13,16%	-4,16%	-4,57%				82,77	5,00	0,00	87,77
4	1956	SOLUTOMA, S.L.	91.530,79	21%	19.221,47	110.752,26	-8,65%	0,36%	0,39%				75,93	0,00	0,00	75,93
5	1985	ONES MARIEZCURRENA	92.690,32	21%	19.464,97	112.155,29	-7,49%	1,51%	1,66%				74,18	5,00	5,00	84,18
6		VICONSA	93.182,97	21%	19.568,42	112.751,39	-7,40%	2,00%	2,20%				73,43	0,00	0,00	73,43
7	1994	JURBYCOLAN-GRAMA (UTE)	93.694,70	21%	19.675,89	113.370,59	-6,49%	2,51%	2,76%				72,66	0,00	0,00	72,66
8		ZUT, S.A.	96.517,42	21%	20.268,66	116.786,08	-3,67%	5,33%	5,86%				68,39	0,00	0,00	68,39
9		ONES CAMPEZO	97.106,50	21%	20.392,37	117.498,87	-3,08%	5,92%	6,51%				67,50	0,00	5,00	72,50
BATEZ BESTEKO ESKAINZA (10 ESKAINZA)			91.174,92			110.321,66	-9,00%									
OFERTA MEDIA (10 OFERTAS)																

Beraz, Kontratazio Mahaia Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Esteban Lasa eta Mariarats kaleetako hegalk egonkortzeko obrak MIRAMAR GUNITADOS, S.A.,ri esleitzea, 82.228,81 €ko prezioan gehi 17.268,05 € (BEZ). Guztira, 99.496,86 €. Egikaritze epea, zortzi astea izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantz eguneratuta egotearen agiriak.
- 4.111,44 € behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

IGARTZA OLETAKO APARKALEKUA ETA HAINBAT GARAJEETARAKO SARBIDEETARAKO PROIEKTUAREN OBRAK.

AURREKARIAK

1.- 2013ko maiatzaren 23an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Igartza Oletako aparkalekua eta hainbat sarbideetarako proiektua exekutatzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Litzitazio prezioa, 279.990,33 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 12 aste.

2.- Deialdia, 2013ko maiatzaren 29an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, litzitazioa hamabi enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, bost enpresei dokumentazioa osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzaion. Errekeritutako dokumentazioa bakarrik hiru enpresek aurkeztu zuten eta horren ondorioz litzitazioan hamar enpresek parte hartu zuten (ikus 2. dokumentua).

4.- Uztailaren 9an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen.

PLEGUEN IREKIERA:IGARTZA OLETAKO APARKALEKUA ETA HAINBAT GARAJETARAKO SARBIDEETARAKO OBRA-LANAK APERTURA DE PLICAS: OBRAS DE EJECUCIÓN DEL APARCAMIENTO DE IGARTZA OLETA Y ACCESOS VARIOS DE ENTRADA A GARAJES																					
		Espe Kodea Nº Expte		2013PROB0004																	
		Epea - Plazo (aste - semanas)		12																	
		OINARRIZKO LITIZAZIOA - LICITACION BASE		279.990,33																	
		BEZ - IVA		-21%																	
		BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA		58.797,97																	
		OROTORA - TOTAL		338.788,30																	
		BATEZ BESTEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA		-40,30%																	
		Eskaintzaileak - Ofertantes		OINARRI-ESKAINZA - OFERTA BASE		BEZ - IVA		BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA		OROTORA - TOTAL		ESKAINZA ERERRATIA LITIZAZIOAREKiko - BAJA OFERTA CON RESPECTO A LA LITACION		BATEZ BESTEKO BEHERAPENAKO ALDIA, HIRU ENPRESEN BATEZ BEZ ZENBATEKOA CON RESPECTO A LA BAJA MEDIA		ESKAINZA-PORTENTUALIA PROPORZIONATUTAKO BATEZ BEZ ZENBATEKOA CON RESPECTO A LA MEDIA DE LAS PROPUERTAS		BATEZ BESTEKO BEHERAPENAKO ALDIA, HIRU ENPRESEN BATEZ BEZ ZENBATEKOA CON RESPECTO A LA BAJA MEDIA - PRESUNCIÓN DE		OHARRAK - OBSERVACIONES	
ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	BEZ ARTIKULUAREN ARABERA BARRIA GELDITUTAKO ESKAINZAK - OFERTAS CALIFICADAS PARA LA MEDIA 57 ART.B5.6	1	1993	ORSA, S.L.	138.073,54	21%	28.995,44	167.068,98	-50,69%	-10,39%	-17,40%	(1)									
		2	1984	OTEGI-GAZTAÑAGA	139.414,06	21%	29.276,95	168.691,01	-50,21%	-9,91%	-16,59%	(1)									
		3	1989	CONST. ECHAIDE	149.574,75	21%	31.410,70	180.985,45	-46,58%	-6,28%	-10,52%	(1)									
		4	1968	UTE (DC CONST. - IC CONST.)	154.063,78	21%	32.353,39	186.417,17	-44,98%	-4,67%	-7,83%										
		5		CNES CAMPEZO	167.800,52	21%	35.238,11	203.038,63	-40,07%	0,23%	0,39%										
		6	1992	IPARRAGUIRRE-ITURRIOZ (UTE)	168.417,43	21%	35.367,66	203.785,09	-39,85%	0,45%	0,76%										
		7		SASOI, S.L.	171.556,56	21%	36.026,88	207.583,44	-38,73%	1,57%	2,64%										
		8	1995	URBYCOLAN-GRAMA (UTE)	177.133,72	21%	37.198,08	214.331,80	-36,74%	3,57%	5,97%										
		9	1996	JOSE Mº SUQUIA, S.L.U	200.597,17	21%	42.125,41	242.722,58	-28,36%	11,95%	20,01%										
		10	1990	ASFALTOS URRETXU, S.A.	204.876,71	21%	43.024,11	247.900,82	-26,83%	13,47%	22,57%										
		11	1986	GONST-MORGA, S.L.	-																
		12	1957	DE-DIEGO, S.L.	-																
ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS																					
		BATEZ BESTEKO ESKAINZA (10 ESKAINZA) OFERTA MEDIA (10 OFERTAS)		167.150,82				202.252,50		-40,30%											
		Eskaintza kopurua - Número de ofertas		10																	

PLEGUEN IREKIERA:IGARTZA OLETAKO APARKALEKUA ETA HAINBAT GARAJETARAKO SARBIDEETARAKO OBRA-LANAK APERTURA DE PLICAS: OBRAS DE EJECUCIÓN DEL APARCAMIENTO DE IGARTZA OLETA Y ACCESOS VARIOS DE ENTRADA A GARAJES														
		Espe Kodea Nº Expte		2013PROB0004										
		Epea - Plazo (aste - semanas)		12										
		OINARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE		279.990,33										
		BEZ - IVA		21%										
		BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA		58.797,97										
		OROTORA - TOTAL		338.788,30										
		BATEZ BESTEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA		-40,30%										
		HIBRENKESA - Nº ORDEN	HIBRENKESA - Nº ORDEN	ESKAINZTAILEAK - OFERTANTES	OINARRI-ESKAINZTA - OFERTA BASE	BEZ - IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	OROTORA - TOTAL	ESKAINZTA BIKERATUA LITAZIOARENKO - BAJA OFERTA KON RESPECTO A LICITACION	BATEZ BESTEKO BEHERAPENA ALDEA PUNTUAN - DIFERENCIA PUNTUAL CON RESPECTO A LA BAJA MEDIA	ESKAINZTA PORZENTAJA PROPOSAMINTUAKO BATEZ BESTEKO - PORZENTAJE DE OFERTAS EN RELACION A LA BAJA MEDIA	BATEZ BESTEKO BEHERAPENEN % PUNTU BARRIO GEMADO (BATEZ BESTEKO BEHERAPENA) EN LA BAJA MEDIA - PRESUNCIÓN DE	OHARRAK - OBSERVACIONES	
ESKAINZTA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	55.4 ARTIKULUAREN ARABERA BARRUKA GELDTUTAKO ESKAINZTA - OFERTAS CALIFICADAS PARA LA MEDIA Y ARTISA	1	1993	ORSA, S.L.	138.073,54	21%	28.995,44	167.068,98	-50,69%	-10,39%	-17,40%	(1)		
		2	1984	OTEGI-GAZTAÑAGA	139.414,06	21%	29.276,95	168.691,01	-50,21%	-9,91%	-16,59%	(1)		
		3	1989	CONST. ECHAIDE	149.574,75	21%	31.410,70	180.985,45	-46,58%	-6,28%	-10,52%	(1)		
		4	1968	UTE (DC CONST.- IC CONST.)	154.063,78	21%	32.353,39	186.417,17	-44,98%	-4,67%	-7,83%			
		5		CNES CAMPEZO	167.800,52	21%	35.238,11	203.038,63	-40,07%	0,23%	0,39%			
		6	1992	IPARRAGUIRRE-ITURRIOZ (UTE)	168.417,43	21%	35.367,66	203.785,09	-39,85%	0,45%	0,76%			
		7		SASOI, S.L.	171.556,56	21%	36.026,88	207.583,44	-38,73%	1,57%	2,64%			
		8	1995	URBYCOLAN-GRAMA (UTE)	177.133,72	21%	37.198,08	214.331,80	-36,74%	3,57%	5,97%			
		9	1996	JOSE Mº SUQUIA, S.L.U	200.597,17	21%	42.125,41	242.722,58	-28,36%	11,95%	20,01%			
		10	1990	ASFALTOS URRETXU, S.A.	204.876,71	21%	43.024,11	247.900,82	-26,83%	13,47%	22,57%			
		11	1986	CONST.-MORGA, S.L.-	-									
		12	1957	DE-DIEGO, S.L.-	-									
ESKAINZTA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS														
		BATEZ BESTEKO ESKAINZTA (10 ESKAINZTA) OFERTA MEDIA (10 OFERTAS)		167.150,82			202.252,50	-40,30%						
		Eskaintza kopurua - Número de ofertas		10										

Ikusten dena da, hiru enpresek aurkeztutako eskaintza, anormala edo neurri gabekoak kontsideratu daitezkeela. Horren ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 152. artikulua eta baldintza pleru administratiboaren 21. artikulua araberan, ORSA, S.L. eta OTEGI-GAZTAÑAGA enpresei errekeritzen zaie eskaintza argitze arren, 2013-07-11rako jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkezteko eta egun horretan bertan, hirigintzako udal bulegoetan azaltzeko.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eraikuntza-prozesuan, produktuen fabrikazio-prozesuan edo zerbitzuak ematean izan daitekeen aurrezpena.
- Hartutako ebazpen teknikoekin eta obra egitean, produktuen hornikuntzan edo zerbitzuak ematean lizitatzaitzaileak izan ditzakeen baldintza oso aldekoak.
- Lizitatzaitzaileak proposatutako obren originaltasuna, hornikuntza edo zerbitzuak.
- Zerbitzua emango den lekuan indarrean diren lan-babes eta baldintzei dagozkien xedapenak betetzea.
- Lizitatzaitzaileak Estatutik jaso dezakeen balizko laguntza.

Egun horretan, bakarrik OTEGI-GAZTAÑAGA enpresa azaltzen da aipatutako dokumentazioa aurkeztuz (sarrera data, 2013-07-11, zenbakia: 2174).

OTEGI-GAZTAÑAGA enpresak bere proposamena justifikatu du adieraziz, bere eskaintzan gastu orokorren portzentaia, nahiz industria onuradunarena %19tik %10^a jaisten duela. Horrezaz gain, kontusail batzuk azpikontratatzeko kudeaketa ona egiteak eragiten du lizitazio-prezioa hobetzea. Lan-hitzarmenak nahiz arlo horretako legea beteko dutela adierazten du. Asfaltoa, ORSA enpresari erosiko diote.

Euskarari buruz adierazi du, obretako langile euskaldun kopurua, garrantzitsua dela.

Hori dela eta Mahaiaren iritzia da, OTEGI-GAZTAÑAGA enpresak modu onean bete dezakeela kontratua.

Paraleloki, CONSTRUCCIONES MORGAK, 2013-07-09an posta elektronikoaren bidez eta 2013-07-10ean (zenbakia, 2155), ondorengo idatzia aurkeztu zuen:

"ASUNTO: ACLARACIONES RELATIVAS A LA APERTURA DEL SOBRE 8 "PROPOSICION ECONOMICA Y CRITERIOS DE ADJUDICACION EVALUABLES AUTOMATICAMENTE", DE LAS OBRAS DE APARCAMIENTO DE IGARTZA OLETA YACCESOS VARIOS DE ENTRADA A GARAJES. EXPEDIENTE N!! 2013PROB0004

Muy Sres. nuestros:

Con fecha 9 de julio de 2013, la entidad Asfaltados y Construcciones Morga S.L., es advertida que su oferta económica no ha sido abierta en acto público de apertura de pliegos celebrado el mismo día a las 9:00 horas, motivado por la no aportación de defectos u omisiones subsanables en la documentación administrativa presentada. Ante ello, D. Iñigo Morgaetxeberria Galatze, con D.N.I. 30.652.743-E, en representación de Asfaltados y Construcciones Morga S.L., traslada las siguientes puntualizaciones en relación al asunto de referencia:

1!!-Que de acuerdo a la cláusula número 25 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, "..., si observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará a los interesados, mediante telefax, correo electrónico, tablón de anuncios electrónico del Portal de la Contratación Pública del Ayuntamiento de Beasain o cualquier otro medio que permita tener constancia de su recepción por el interesado, de la fecha en la que se reciba y del contenido de la documentación, ...".

2!!-Que la entidad Asfaltados y Construcciones Morga, no ha tenido CONSTANCIA de acuerdo al PCAP de su recepción, de la fecha recibida ni del contenido de la documentación, y en muy menor medida del plazo límite de subsanación de la documentación administrativa. Además, se traslada desde el Ayuntamiento con fecha 9 de julio a Asfaltados y Construcciones Morga S.L., su constancia relativa a la incorrecta recepción por parte de este último de la notificación del correo electrónico, por causar error en su envío.

3!!-Por lo tanto, solicita, previa aportación de la citada subsanación de la documentación administrativa;

Se proceda a la apertura pública de su sobre 8, relativo a la "Proposición económica v criterios de adjudicación evaluables automáticamente", de acuerdo a las justificaciones aportadas.

Sin nada más que añadir y a la espera de su respuesta

Reciba un cordial saludo Atentamente

Firmado:

Iñigo Morgaetxeberria Galatze

Asfaltos y Construcciones Morga sl.

En Lemoa, a 9 de julio de 2013"

Idazkariak azaldu du 2013-07-03an bost enpresei (Sasoi, De Diego, Cnes Morga, Cnes Echaide y Asfaltos Urretxu), pertsonalitate eta kaudimenari buruzko dokumentazioa aurkezteko errekeritu zitzaizela. Errekerimenduak, lizitatuak proposamen-kartazalean adierazitako posta elektronikoetara bidali ziren eta aldi berean, kontratatzailearen profilean jarri zen.

2013ko uztailaren 5ean, "sistemaren administratzaileak", ohartarazten du ezinezkoa izan dela Cnes Morgari zuzendutako mezua entregatzea.

Horren berri, batzorde sustatzaileko teknikoari ematen zaio. 2013ko uztailaren 8an, 9,32etan erregistratuta geratzen da (dei telefonikoen erregistroa), Cnes Morgarekin kontaktatu dela. Hau udal aparejadoreak baieztatzen du eta adierazten du jakinarazi ziola egindako errekerimendua.

Hori dela eta, Kontratazio Mahaiaren ustetan, pleguan ezarritakoa bete da. Kasu honetan gainera, pleguan ezarritakoa Kontratu Legeak garatzen duen Araudian esaten dena baino zorrotzagoa da:

"Si la Mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará verbalmente a los interesados. Sin perjuicio de lo anterior, las circunstancias reseñadas deberán hacerse públicas a través de anuncios del organo de contratación o, en su caso, del que se fije en el pliego..."

Beraz, erabaki du CNES MORGA eta DE DIEGO, S.L.enpresak aurkeztutako proposamen ekonomiko kartazala ez irekitzea.

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

d) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 + 1,25 \times ((A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} - B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) / 1000$

e) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkeztu badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.
-
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

f) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkeztu ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi da OTEGI-GAZTAÑAGA, UTE, ITURRIOZ-IPARRAGIRRE eta SASOI, S.L.ek, euskera sustatzeko ziurtagiria aurkeztu dutela eta bakarrik CNES CAMPEZO enpresak aurkeztu duela, emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiria.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaiak erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea-

Beraz, lizitazioan parte hartu duten enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengo da:

		PLEGUEN IREKIERA: IGARTZA OLETAKO APARKALEKUA ETA HAINBAT GARAJETARAKO SARBIDEETARAKO OBRA-LANAK													
		APERTURA DE PLICAS: OBRAS DE EJECUCIÓN DEL													
		Espe Kodea Nº Expte													
		Epea - Plazo (aste - semanas)													
		OINARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE													
		BEZ - IVA													
		BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA													
		OROTORA - TOTAL													
		BATEZ BESTEKO BEHERAPEÑA - BAJA MEDIA													
		ESKAINZAILEAK - OFERTANTES													
		HURERKENA - Nº ORDEN	HURERKENA - Nº ORDEN												
				OHARRAK - OBSERVACIONES											
				ESKAINZAREN KONTENTUA PROPOSAMENAREN BATEZ BESTEKORAREN ARABERA - FORTALEZAK OROKORREZ BEZELAKOAK OROKORREZ BEZELAKOAK											
				ESKAINZAREN ARABERA BIRKALKULA - RECALCULO / ARTICULO 8.4											
				PUNTUACION											
				EUSKERA											
				KUALIDAD											
				SUMA TOTAL											
ESKAINZTA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	85.4 ARTIKULUAREN ARABERA BARRUA GELDITUTAKO ESKAINZAK - OFERTAS CALIFICADAS PARA LA MEDIA 5 / ART 85.4	1	1993	ORSA, S.L.		-12,75%	(1)	90,00	0,00	0,00	90,00				
		2	1984	OTEGI-GAZTAÑAGA		-11,91%	(1)	87,97	5,00	0,00	92,97				
		3	1989	CONST. ECHAIDE		-5,48%		72,60	0,00	0,00	72,60				
		4	1968	UTE (DC CONST.- IC CONST.)		-2,65%		65,81	0,00	0,00	65,81				
		5		CNES CAMPEZO		6,03%		45,04	0,00	5,00	50,04				
		6	1992	IPARRAGUIRRE-ITURRIOZ (UTE)		6,42%		44,10	5,00	0,00	49,10				
		7		SASOI, S.L.		8,41%		39,36	5,00	0,00	44,36				
		8	1995	URBYCOLAN-GRAMA (UTE)		11,93%		30,92	0,00	0,00	30,92				
		9	1996	JOSE M ^o SUQUIA, S.L.U		26,76%		-4,57	0,00	0,00	-4,57				
		10	1990	ASFALTOS URRETXU, S.A.		29,46%		-11,04	0,00	0,00	-11,04				
		11	1986	CONST.MORGA, S.L.											
		12	1957	BE-DIEGO, S.L.											
ESKAINZTA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS															

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Igartza Oletako aparkalekua eta hainbat sarbideetarako proiektua exekutatzeko obrak OTEGI-GAZTAÑAGA enpresari esleitzea, 139.414,06 €ko prezioan gehi 29.276,95 (BEZ). Guztira, 168.691,01 €. Egikaritze epea, hamabi astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 6970,70 € behin betiko fidantza eratzea.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan ondorengoa aurkeztu da:

HAINBAT GARAJEETARAKO SARBIDEAK

Josi Insausti jaunak (H1) esan du Igartza Oletako aparkalekua egiteaz gain, hainbat garajeetarako sarbideak ere konpondu behar direla eta gertatzen dena dela ibi iraunkorraren ordenantzaren arabera, ibi iraunkorra duten garajeetarako irteera-sarreren zoladura jabeek konpondu behar dituztela. Orain, aldiz, Udalak konpondu behar ditu eta hau bera gertatzen da ibi iraunkorra ez duten irteera-sarrerekin. Agian, ordenantza hori errebisatu egin beharko litzatekela dio.

Alkate jaunak ihardetsi du esanez Dulce M^a Loinaz 1, 13-14ko, Zapadari 1-3, 2A eta 5eko garaje sarrera-irteerak konpondu behar direla eta ibi iraunkorraren ordenantza aztertzen ari direla aipatu diren kontraesanak aldatzea proposatzeko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaikak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta idatzi eta sinatu dut.